

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

3197

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 15ekoa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratu dela 2023ko ekainaren 14ko Ebazpena, kide bat Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ofizial Kategoriako karrerako funtzionarioa izendatzen duena.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak 2021eko martxoaren 2an eman zuen Ebazpenaren, Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ofizial Kategorian sartzeko hautaketa prozeduraren deialdiari buruzkoaren, hamaseigarren oinarriarekin bat etorriz (martxoaren 23ko EHAA, 58. zk.), eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 9. artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinarazten da 2023ko ekainaren 15ean argitaratu dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2023ko ekainaren 14ko Ebazpena, kide bat Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ofizial Kategoriako karrerako funtzionarioa izendatzen duena.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Jaurlearitzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 15a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MIREN GOITIA GABIOLA.